

# Mundakako arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa (I)

Eneko Barrutia

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala  
barrutia5@euskalnet.net

## Abstract

This is the transcription of a recording made from a fisherman from Mundaka, in order to enrich the corpus of popular Basque language.

## Laburpena

Herriko euskararen corpora gehitu guran, Mundakako arrantzale bati egineko grabazio baten transkripzioa da berau.

**Keywords:** transcripts, the variety of fishermen, oral corpora, Biscayan Basque.

**Gako hitzak:** transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpora, bizkaiera.

Herriko euskararen corpora gehitu guran, Mundakako arrantzale bati egineko grabazio baten transkripzioa da berau.

2000. urtean argitaratu nuen *Bizkaiko arrantzaleen hiztegia. Léxico marinero vizcaino* liburua. Liburu horretan Mundakako lekukoa Dimas Zaldunbide izan zen, 1921ean jaioa. Zaldunbideri laurogei ordu inguru grabatu nizkion eta berarekin izaneko lehenengo grabazioaren edo lehenengo orduaren transkripzioa da honako hau. Grabazioaren data 1989ko irailaren 17a da.

Arrainen gaineke galdeketa da. Arrastako patroia izanekoa da Dimas Zaldunbide eta bere ofizioko arrainak ondo ezagutzen ditu. Inuesta honetan askotan gaztelaniaz proposatzen zaizkio izenak berak euskaraz eman ditzan. Batzueta erdarazko izen horiek badakizki eta beste batzueta ez. Beste askotan Bermeoko berbak proposatu nizkion, berdin esaten ziren konprobatzeko. Hurrengo grabazioetan denetariko arloak lantzen dira, ez arrainak bakarrik: itsasontzi motak, aparaoak, sareak, eguraldia eta abar.

Artikulu honen helburua bikoitza da. Alde batetik, arrantza-mundua aztertu nahi duenarentzat lagunigarri izan daiteke. Bestetik, eta hauxe da nire helburu nagusia, herriko euskararen corporaren lekuko izan daiteke. Corpus hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errazago atera ahal izango ditugu era askotariko ikaskizun eta ondorioak.

Grabazioan entzuten den guztia transkribatu dut, bai informanteak esanekoa, bai neuk esanekoa. Neuk esanekoa letra etzanez ageri da eta lekuoak esanekoa letra beltzez. Batzueta parentesiak erabili ditut, parentesi barruko testua ez dudala hain argi ulertzen adierazteko. Benetako dokumentua grabazioa bera da eta argitaratzen denean hobeto ulertu eta zuzendu ahal izango da parentesien esangura. Dena dela, Dimas

honetan ere berezia zen, boz argia zuen eta ondo azaltzen zituen gauzak.

Han-hor-hemen berbareni baten gaineko ohartxoa ipini dut. Gehienak hizkerari dagozkie, eta gutxi batzuk esangurari edo gaiari.

Aikomen orain urte batzuk neure lagun Dimasek eta biok edukiko elkarritzeta.

## 1. Dimas Zaldunbide

1989-IX-17

1 A

**Dimas Zaldunbide:** esate baterako e Bermion magaridxe<sup>1</sup>, magaridxe esanda magaridxe, da Mundekan magaridxa

Eneko Barrutia: "a"gas esta?

"a"gas. Ogidxa, Mundekan, an ogidxe. Ardawe, an ardawe, da Mundekan ardawa<sup>2</sup>.. Ser gusu<sup>3</sup> gedxau esatia?

su mundakarra sara orduan?

ni mundekarra, bai. Dxaidxokeratik, dxaidxo ta dana berton, Mundekan  
da aitxa ta ama be bai, mundakarrak?

ama ixen dot bermiotarra. Da aitxe mundekarra

ba beitu dis arraňen isenak. Gitxi gorabera bardin esango da baya, ikusteko ia bardinak badiras edo

<sup>1</sup> magari = madari. Bermeon ere magaridxe esaten da.

<sup>2</sup> Transkripzioan ikusiko denez, Dimasek ogidxe, ardawe erara egiten du berba; Bermeoko eta beste Mundakako arrantzaleek legez.

<sup>3</sup> gusu = gura dozu

es. Amen dakar ba, Bermion selan esaten dan; gero, isen teknikoa

**gardié -irakurri-**. Mundakan *gardíá, gardia*  
olan esaten sue suepe bai?

**bai, bai**  
erderas “ganabota” edo, “boquidulce” edo  
bueno, tibúroyé -irakurri-, da *tiburoyé*, tiburoyá,  
esta? Da marraixue da differentie tiburoitxik  
marraisue ta tiburo-?

**marraixue da tibu-, antzekuek.** Antzekuek, baye  
**marraixue,** Mundakan *marraixua*, entiendes?,  
**marraixue**  
“a”gas Mundakan?

“a”gas, “a”gas, bai. Da tiburoye da arraiñ antzekue  
baye da differentie, agiñek eta danatakos bardin  
ántzekuek. Gero dau beste arrain bat... selan  
deitxuten..

antzekua edo?

...  
**gero agertuko da**

**bai**  
orduen “gardie” esaten da Mundakan?

**gardia**  
da orrek atrapaten dias ala?

**len esan jaten**<sup>4</sup>. Len esan jaten. Da gero, oiñ e bai  
ogeい bat urte ta, ogeい bat urte ta, ni arrastan ibil  
naitxen<sup>5</sup>-da, artze bin e, gawes, gardak, da asala  
kenduta saldu itxen san Ondarrun. Esatebin e  
Sumaidxen da órretan dxan eitxe sala. Ori  
beraniantik sartungo tzun e, esatiles, -barre- arraiñ  
ona dalakun asala kendute

baya Mundakan esan dxaten es?

**es es. Gero bai. Oiñ e, bai geruau bai**  
“peregrino” esateko “marmok arraña”?

**marmok arraña, deitxuten tzo, “peregrino” da**  
**marmok arraña?**  
suepe bai esaten sue?

**marmok arrañe, bai.** Marmok arrañe da, ee, esati les  
ónen e errasa ingerukue. Tiburoyn da marraixun da  
errasakue bay aundidxe<sup>6</sup>, aundidxe. Aundidxe ba,  
pfee, iñox e atrapa du, se-sango tzupa, baa amar  
metroku-ta bai, bai bai bai  
atrapasue iñox?

**bai, atrapa du. Da, Getáidxán, Getaidxan** oten sin  
sariekei marmok arrañe(k) atrapateko. Sariek oten  
sin. Da, an e ba, semat? ba, lau metro, bos-métrokuk

<sup>4</sup> beste inoiz ez zuen Dimasek hori horrela ahoskatu, *dxaten*  
beti gero.

<sup>5</sup> naitxen = nintzen. *Nayen* forma “berriagoa” ere erabiltzen  
dute batzuek.

<sup>6</sup> ez dut uste beste inoiz *aundidxe* esan zuenik, *andidxe* beti.  
Enfatikoa ote?

**eta atrapate sien. Lau-bos metroku(k) baye, badau e,**  
**on da amar metroku be**  
andidxak es?

**bai, bai bai. Bay**<sup>7</sup> ostantzin e, normala, auri, bos-  
métro, bos metro ingerukue  
ametik ibiltxen dias orrek?

**len bai. Oiñ esta agertuteneori be.** Beste arrain bat  
masopia  
gero, estakitz, ongo da nonon, “masopia”  
seiñdexa?

**bát-a “tolino”, tolino.** Tolion antzekutaus,  
antzekutaus, ea, gero, agertuko da, bai, bai, bueno  
ta esateko “colayo”?

**koláidxue**  
da “itxukidxa”?

**itzukidxe.** Bermion *itzúkidxe* deitxuten san. Da  
Mundakan *koláidxue*. Ondarrun be *kolaidxue*. Bai,  
*koláidxue*

da Bermion “itxukidxe” orduen  
**itzukidxe, bai**  
da Mundakan esta esaten “itxukidxe”?

**Mundakan kolaidxue.** Oiñ esaten da *itzúkidxe*, se,  
jente asko ibil gareles Bermiotik arrantzan da  
bakixu se itxen den euren berbetie artun. Euren ori  
artun esatiles, baye ostantzien, amen beti-xen da  
*koláidxue*. Ontxé be bai, *koláidxue*. Oin, batzuk  
esaten du *itzúkidxe*, ibil garelakon eurekas itxasora  
ta bakixu, beti-txen<sup>8</sup> da, neupe asko itxen dot  
bermitar berba, nipe-  
ibil sara eurekas?

**nik e ogéta lau urte ein tas**<sup>9</sup> arrástan  
eurekas, bermiotarrakas?

**bermitarrak**<sup>10</sup> eta ya galleguk eta, jente asko, baye  
bermitarrak be bai, asko. Lé lengoko barritxen<sup>11</sup> ibil  
gara danok e bertokuek, danok bermitarrak, da  
gero, aur e<sup>12</sup> konflituk on sin da otor sin galleguek  
eta andalusek eta errasa gustidzek otor sin ordun  
Ondárrure arrantzan

da selan esango lekisu “hemos cogido dos  
colayos”?

**ba kolaidxo bi atara du- atrapa dus, kolaidxo bi**  
**atrapa dus**  
esateko “pintarroja”?

<sup>7</sup> bay = baya, baia, baina

<sup>8</sup> beti-txen = beti egiten

<sup>9</sup> tas = (do)taz, dodaz, ditut

<sup>10</sup> bermitar, Bermítik... esatea, bermitar, Bermiotik barik,  
Mundakako ezaugarria da.

<sup>11</sup> lé lengoko barritxen = hasikeran

<sup>12</sup> áurrek (haorreek) izan ote litekeen ere zalantza eduki  
daiteke.

**pitxarrósie, pitxarrosie.** Nik, ará, neuk esu-kusten<sup>13</sup> selan eitxen doten “e”n amaitxu? Akostunbrata nawelakon. Da amen da *pitxarrosia*  
ba suk esan Mundakakules  
**bai, pitxarrosia.** Da beste bat momiá  
“dos pintarrojas” selan esaten da?

**pitxarrosa bi, pitxarrosa bi**  
“la gata”, “el alitan”?

**momié, momie**  
amen “a”gas esta? “momia”?

**bai.** Da beste arrain bat-au, onen antzekue, onen antz-, (ara) ukustesu neuk e (..), onen antzekua, dau beste bat: tollá, tollá. Baye tollatako, itxagon<sup>14</sup>  
au dxaten da, momia dxaten da?

**bai bai bai bai.** Tollá, tollatako, e tollatako, a, ámen  
dau, ámen dau, tollá  
a bai, bai. Or dau, “cazón, mozuela” erderas  
**bai, tollá, tolla**  
da olako bi?

**atrapa du toll bi.** Toll bi atrapa dus  
da momia ta tolla antzekutias ala?

**es, momi da pitxarrosin antzekue,** pitxarrosin antzekua. (Ukuste su) “e”k urtetan dost e, baye da, ee, asala-ta bardíñe dako, bardíñe, baye dako aulamantxa baltzak, mantxa baltzatakos, da andidxawe, bai  
da “tintorera, tiburón”, “tiburoya” esan du len es, eta “tiburoi asula” badau bat?

**estaipe<sup>15</sup>, estaipa.** Estaipa tiburoi asule, ongo da  
baye, bai, ongo da  
da “cazón”, “pez peine”, “kasoye” edo?

**kasoya, kasoye?.. kasoye..<sup>16</sup>**  
Bermion esaten da olan “kasoye”, supe bai?

**kasoye, bai.** Au da miélgia, e?, mielgia, au da,  
bardin-bardin-bardin-bardíña-  
len, lengua  
**bai, bardin-bardin-bardíña,** tollá, tollá, non dau?  
Amen dau, tolla lako bardin-bardin-bardíñe,  
bardin-bardíñe, baye dako, miélgitako lepún sué,  
sua, sue, selan esangotzut e.. erderas e “una espina”,  
sue, sué deitxuten tzagu, dako ta, tollak estako, bai.  
Ostantzien bardíñe, bardíñe baye mielgitako súa da  
tollak estako  
da esta bata bestia baño obia edo?

**e bardíñatie, bardíñatie.** Bueno e, órrek, atxiñe, oiñ e  
gánera ba, ori dxan besta<sup>17</sup> eitxen, atxiñe dxaten sin

orrek, ee, igiri<sup>18</sup>, da sikátú. Igiri txa sikatu, da neguen erreta taa aulan imiñ(dxe), erre ta gero oridzu bota, ciñ e asala kendu erre ta gero ta, (...) oridzu botata dxaten san ori

“mielgia” antzekua esta?

**mielgia, antzekue**

da “galludo”, “ferrón” bardin esaten da  
Bermion “mielgia”, “mielgia” ser da klase bi edo  
mielga asko daus edo?

**es, nik daitxela<sup>19</sup> mielgie, mielgie, gedxau es.** Oiñ,  
beste leku baten e on lei baye  
da “hemos cogido dos mielgas”?

**miélgia bi atrapa dus, mielga bi atrapa dus**  
“la lija”?

**ori da, lixia**

bai, bardin Bermion

**ori da lixia, (ara) esu ukusten?, danak amaitxuten**  
die “e”gas, lixia, lixie da urándiko arrañe  
urandiko arraña?

**bai, urandiko arrañe.** Lixiek e gu dau esan “lija”.  
Dakolakon e asala, selan esangotzupa, ño!, arraspa  
eitxen dau asko. Da ori atrapaten da urandidxen,  
atxiña dxuten sin e arrantzán, bermiotarrak e  
mundekarrapaiño gedxau, dxuten sin arrantzán  
lixetan, urándidxetara. Da ori arraña be itxen san,  
ori a- arrain suri-suridxe da, barrue e? Asala  
bakixu, illune, illuna. Da órrepe itxen sin sikatu, igiri  
txa sikatu, dxateko erreta  
oiñ estis dxaten orrek?

**esta iñor ee ibiltxen orrek arrañek atrapaten, esta.**  
Orii, amaitxu san, ori..  
ta olako bi, “hemos cogido dos lijas”?

**ba lixá bi atrapa dus**  
“pez angel”?

**pes anjel da, itxagon, “pes anjel” da..**  
Bermion “billaua”

**billaua, billawe bai, billau da, billawe**  
da “hemos cogido dos peces angel”?

**billáu bi atrapa dus**  
ta orrek atrapaten dias edo..

**len, len atrapaten san ori errasia, amaitxu eiñdexa,**  
errasi amaitxu eiñdexe. Otorte<sup>20</sup> sin atxiña, ni gasti  
nayela<sup>21</sup>, otorte sin getaridxarrak, sariek okitxe bien  
billau-sarieki, amen be oten sien, amen be oten sien  
ba, bi edo iru dedikaten sinak ee ori arrañe  
atrapaten. Da getaridxarrak otorten sien, kanpaní  
itxen e billáwek atrapaten, bai, billawek. Da okitxe

<sup>13</sup> esu-kusten = ez dozu ikusten

<sup>14</sup> *itxagon* oso mundakartzat daukat, *itxaron* barik.

<sup>15</sup> ez dut uste lapsuztat hartu behar denik, Bermeon ere  
batzuek *estaipe* esaten dute.

<sup>16</sup> pentsatzen, badirudi ez dakiela ondo.

<sup>17</sup> besta = be ez da.

<sup>18</sup> igiri = idegi, iregi, ireki

<sup>19</sup> daitxela = dakidala. Beste batuetan *neutaitxela*,

izenordainaren forma indartua erabiliko du.

<sup>20</sup> otorten = etorten, Bermeon ere edadekoen artean nahiko  
erabilia.

<sup>21</sup> nayela = nazela

bien atrapa ta gero bixirik, bustenetik amarra, da uretan okitxe bin bixirik, da andrak estate binin ba: átara bat edo bi saltziko, atarate bien, asala kendu ta sáltze san, arrain gosue

da suek esenduen atrapaten ori?

es, es. Da sarrak, oiñ e ori errasie amaitxu da  
da “tremielga”? Bermion esaten da  
“eskukaridxe”

eskukarie, eskukárie, bai eskukarie da, eskukari da,  
ámen kostan atrapaten da, erreketan e olan,  
erridxutan e

a itxasuan es

eskukarie es, es. Gitxi, órrek kostan, atrapaten da.  
Ba eskukari da, agarraten batzasu, eletrisidadi  
omoten dau, eletrisidadi omoten dau, eskukarie,  
arrañe da biribilla, biribilla bustenas, da.. bigune  
bera, esta, estu dxaten  
es?

estu dxaten, es es es  
da olako bi, “hemos cogido dos tremielgas”?

ba, eskukera bi atrapa dus  
esku-?

eskukerie, eskukerie  
“la raya común”?

ba arráidxie  
amen “a”gas esta? arraidxia?

arraidxia  
“dos rayas comunes”?

arraidxetaus, differentitaus, bat deitxuten tzaguna-,  
igual ongo da amen

bai, “basatako arraidxia”

arraidxin antzekuek, antzeku dau, bat deitxuten  
tzaguna pikúdia, pikudia. Beste bat-au arraidxie  
ixarra dakona. Pikuditako.. lepuen, ónek e, píntxuek  
estate baterako, da, arraidxie, bestie, ixarra dakoná,  
da, fin-fin-fin-fiñé, fin-fin-fiñé

estis bardiñak orduan

es, es. Arraidxetaus ba, e differentee, differentitaus,  
ori pikudi bat, ori ixarduna beste bat, beste bat-a<sup>22</sup>  
lixue, estakona márkarik. Badaus differentik e, iru-  
lau e kláse bai

ba Bermion esaten jako bateri “basatako  
arraidxa”, ori entzun su?

esta esa- amen arraidxie, arraidxie, arraidxie ta  
pikudie, da, andidxe, pikudi andidxe ixeten da,  
onbre, txikidxe be badau e? Baye andidxe be ixeten  
da, bai beren<sup>23</sup> ogei kiloku ta oten die  
da nondik ibiltzen da ori?

ori sabalau. Esatiles e, kánporau. Bai, kostan barik,  
kanporau

<sup>22</sup> bat-a = bat da

<sup>23</sup> beren = bere. Beren eta beran erabiltzen dira Bermeon eta Mundakan. Beran da nagusi.

da “arriko arraidxia” badau bat edo?

es, bardin, orre-, orrek bardin antzin

“pastenaca, chicho”, “eskokeria” edo “eskoarrañe”  
edo, len esan su esta esko-

eskukerie, bai, orretako, orretako, eskukerie, bai,  
eskukerie, itxagon, itxagon, beste (arrain selan  
dako?).. eskukerie, amen dau

estaitx bi badias, estaitx Bermion selan dan  
eskokarie -irakurritz-

gero amen dakar “eskokeria” ta amen  
“eskukaridxe”, estakitz Bermion selan esango dan ori

eskukarie da arraidxin antz-antzukua, bardin-  
bardin-bardiñe, bay dako bustenien, sué. Auri<sup>24</sup>  
dako, bustenin sue, ba(y) ostantzin bardin-bardiñe  
da. E buru dako, e buru dako, olan lixu-lixu barik,  
ataten dau e musturre (au)lan e konbias, ori arrañe  
amén estu dxaten, enkanbio Mediterranuen,  
Mallorcan, dxaten da ori  
bai e?

bai. Se ni serbesidxun<sup>25</sup> on nai<sup>26</sup> Mallorcan iru urte,  
da plasara dxute naixen neu erosten arrañe. Bueno,  
da plasaku itxen, arrañe ta daná dalá. Da, an asala  
kenduta dxate san. Amén be, iñoix dxan da, selan  
esangotzupa, andrak engañata, plasan. Esati les asala  
kenduta arraidxi les bardin-bardiñe dalakon,  
arraidxin ojakue, arraidxi lako bardin-bardin-bardiñe  
da, asala kendute, asala kendute, ostantzien igarten da  
sér<sup>27</sup> den<sup>28</sup> e beren busten bi, aulan dako bustenin e  
sue

“chicho, rata”, “tramaidxia” badau bat?

tramaye da arraidxin antzekue, arraidxin antzku:  
tramaye

antzekutis orrek danak?

bai, antza, antzekue, tramaye dela andidxawe  
da dxaten dias orrek?

bai, tramaye dxaten da bai, bai bai  
olako bi?

bai, tramái bi artun dus, edo tramái bi atrapa dus  
“rata de mar”, “borrico”?

itxaskatua, itxaskatua, itxaskatua, atxiñe, gerra-  
denporan usaten san, orrek omoten<sup>29</sup> dau sañá,  
koipie, barruko orrek, koipi omoten dau, da orregas  
koipias eitxe-san atxiñe gosie ta bakixu, an gerra  
bueltan, da eitxen san arrañe prejidu, orregas. Da

<sup>24</sup> ez dut ondo entzuten auri, ori, azentua aurí da eta horrek  
areago despistatzetan nau.

<sup>25</sup> serbesidxuen = soldaduzkan.

<sup>26</sup> on nai = egon naz

<sup>27</sup> azentuduna da. Askotan, gehienetan ser-dá... ahoskatzen da.

<sup>28</sup> den = dan; denien = danean... Formarik erabiliena izan ez  
arren Bermeo-Mundakan.

<sup>29</sup> omon = emon. Bermeon ere nahiko erabilia edadekoen  
artean.

baitxe usaten san ori, kurtzuluek, aldietan da kurtzuluk usaten sin orduen, kurtzulu da ba argi itxekue

a bai, bai

da kurtzulutan-da imintxeko orren sañé, argi itxeko  
itxaskatuak dis orrek es?

itxaskatu bai

"arenque"

arenkie, gutzako sardiñie. Sardiñie

da arenkie?

arenkie, arenki da, e sardiñie, ni pentzaten dot e errasie bardin-antzku dela, e, arenkie, arenki da andidxawe, sardiñi baiño, bai, se sardiñie, legesko sardiñie ixeten da *San Antonio sardiñie* deitxuten tzaguna, San Antonio sardiñi ixeten da gosuna dxateko. (Aurdun dana dalakon) koipie, asi juniutik eta agostun e askenetarako koipie ta ori da *San Antonio sardiñie*, gero orí arenki da, andidxawe. Da gero dau beste bat *arinkoya*  
"arinkoya"?

arinkoya, ori da, andidxe. Arinkoye da andidxe, arinkoye, e amen ee esta, esta dxaten, baye Portugalen-da bai, dxaten da  
Portugalen bai e?

bai, Portugalen-da dxaten da, da gánera saltzen da satika, satika sáltzen da<sup>30</sup>. Árek ba, killokuk-eta oten di arinkoyek

olako bi?, esan sune, "hemos cogido dos"?

arinkoi bi atrapa dus

iru daus amen: arenkia, arinkoya da sardiñia

arinkoye da andidxawe, gero sardiñie, bai

klase asko daus or esta?

bai, bai bai. Gero dau sapálua. Sapalue  
erderas sabalo

bai, bai. Sapalue da e, arin e- sardiñ(in) antzekue, bay dako e tripan be dako aulan e, aulan pasata eskue ee eitxen daa (...) pintxotxu les e topaten dxako. Bay txikidxe ixeten da e? Sapalu da txikidxawee sardiñi baiño, bai bai  
ta dxaten da ori be bai?

dxan e, itxasoko arrañe gustidxe dxaten da, dana dxaten da bai

olako bi? dos sabalos

baye ori esta atrapaten ámuas, orii dana atrapaten da sarikas, tráñakas da olan

<sup>30</sup> saltzen da satika eta satika saltzen da. Lehenengo saltzen da satika irten dio baina bigarrenean, satika saltzen da, forma zuzenagoa. Askotan gertatzen zaio/zaigu hori, esaldia berreraikitzeo denbora izanera zuzenago esatea. Ohar hau egin gura izan dut ordena dela eta, testuetatik ateratako esaldiek askotan interpretazioa behar dutela erakusteko. Ordena bata edo bestea erabili, ez da berdin; ez daude maila berean. Arriskutsua da ahozko testuetatik, beste barik, esaldiak ateratzea eta Mundakan hau eta bestea erabiltzen dela esatea, bereizketa edo mailaketa barik.

"hemos cogido muchos"?

ba, sardiñ asko atrapa dus, "sardiñ asko atrapa du",

edo sapaloo, sapalun etxadi-ñdxu

"pez hacha, saboga". Bermion esaten da "alatxie"

bardin-antzko arrañe

beste bat da?

bardin-antzku. Órrek e, ori dana da errasa baye diferente ori, bardin-antzku da ori be, bardin-antzku

da ordun entzun su alatxie be bai esta?

bai, alatxe bai

olako bi?

ba, latxa bi atrapa dus

"el boquerón"?

bokartá, bokarta. Edo antxobia, edo antxobia  
selan esaten su gedxau suk?

e bídxetara, bai, e, badiñotzut, bermitarrakas ibil gareles, Bermion, amen Mundakan ixen da *antxobia*, *antxobia*, da, bermitarrakas ibil gareles, an beti-xen da *bokartá*, bokarta. Gedxau (ixe)ten san bokarta, amen báiño. Bay gero bakixu, gauseles erridxek alkarren onduen, eiñdxe berbie bat, da amén deitxuten da edo *bokarta* edo *antxobia*

da "muchas anchoas" selan esaten da?

bokart asko atara du, bokart asko atrapa du

edo ostantzin antxo-

edo antxoba asko atrapa du

"pez plata"?

abuxá, abuxa, ori kostako arrañe da, kostako arrañe da. E ámentxe ee, alkantarilletan-daa, portun-da olakue oten da abuxe, bay dau beste abúx bat, beste abúx bat-au, kanpoku, kalakua, kalan e, or e, eun-brásetan da atrapaten da, bay atrapaten da arrástan, arrastan, arrastako sarikas atrapaten da, Sananderen presidxo ona eitxe ban, arrain karu ixeten san, amen esta ukusten kostan e? Arrastan. Da orretako barruen, estaipe, estaiipa, botikantzako edo seuse itxeko álako urresuridxe laku dako barrue. Orréitxik deitxuko tzu "pes plata" orri. Orreitxik deitxuko tzu. Baye da, kanpoko abuxe da ori, da barruko abuxe da ba txikidxawee ta-ori be atrapaten da, barrukua be bai?

barruku bai, atxiñe, atxiñe atrapaten san amén e serásukas, daa dxateko, da oiñ atrapaten dau serásukas lupínek atrapateko. Karnada bixidxe (esati les)

"pez luna"?

pes luna: *atálua*. Atálua. Ori, oten da, ee asalien, beren egue atata dala, aulan plin, plan, ordun oten da *lo* esaten du dawela, esaten du: *lo-dáu, atalue*. Da, egwaldi kalmak dausenin da olan dawenin bare-bare taa aixe barik eta an ukusten die ba igual e bost edo

sei éra batera ta aulan. Da esati dau, esakerie, esakeri dau, ataluk salta eitxen dau, áidin saltaten dau, iru bider saltaten dawena euskalduna dela – barre-

*da ostantzien kanpotarra*

bai. Esakeri dau. Da atalu(k) saltaten dawenien egwaldi ona dawela, egwaldi ona, bai  
da olan da? olan esaten da?

bai

da olako bi?

atalo bi atrapa dus. Ónetan esta dxaten, esta dxaten. Da, enkanbio, Ondarrun bai. Ondarrun, igiritxen da lepotik olan dana igiri, igiri, da barrun dako, aulan e aregidxe suri-suri-suridxe, gatz askogas egosi, da gero orritxu, da, berakatza oridxugas bota ta angula les dau, gosó

suk dxan su?

nik dxán dot bai. Bay Ondarruko patroi batek imiñdxe

*"anguila"*

anguila?, anguila?.. angilie? "Anguila" ba sarditie, ori da sarditi kostan, portun atrapaten dana: sarditie. Sardita-

*sardita ori da anguila?*

bai. Orregtako, orrek estako asurrik e.. esati les asurre, erdiko asurre baiño estako orrek sarditiék, da ori atrapaten da ba portuen, Bermioko portun da amen, basi dawen lekun, amen esta atrapaten, Mundekan esta atrapaten, es

olako bi?, dos anguilas?

sardita bi atrapa dus, sardita bi

da "morena"?

angira-morie, angira-morie, ori, esango tzut, angira-morie, da, au e, se-sangotzupa, sugoye bakixu ser den

sein?

sugoyé

ser da?

sugoye da, e.. "culebra"

*a, "suboya"*

sugoya, sugoye

nik entzun dot "subo"?

da guk e sugoya, sugoya. Da bardin-bardiñe, sugoyen antza, baye sugoye a selan dakon a aulan papúek e kaskabel edoo, ala-, álaku da. Álan dakos. Da da, ee, se-sango- gris-ántzekue, mantxakas. Guk estu dxaten, baye Andalusi mándatik eta Mallorcatik eta órretan, usaten da ori paellarako. Paellarako usaten da, guk e amen mandan esta dxaten

egon bai, egon badaus amen?

gitxi, gitxi, bai  
olako bi? dos morenas?

angira bi atrapa dus. Angira-mora bi, angiramora bi  
"congrio"?

angirie, bai. Angiri da, sarditin antzera eitxen dau, da esta bardiñe, esta bardiñe. Da, angiritako, sillétik berá asur txiki asko, orreitxik e, amén arrantzaliketa guk estu dxaten bustenetik edo silleti bera, silleti(k) gora guk dxaten duu, se, silletik gora estako asur txíkirik, erdiko asurre baiño. Da silleti bera dako aiñ asur asko, asur txiki asko, esiñdexa pi-pi-pi beti (...) bi xu, asurrak ataten autik  
da olako bi?

angira bi atrapa dus  
"paparda, aguja" selan esaten da?

akulie, akulie bai. Akulie kostako arrañe d-, bueno, kanpun be (bai) atrapaten da, akulie. Daa, oten die batzuk e ederrak, amen e, kostan atrapaten di kasan, kasan e, lumies edo olan atrapaten die, da atxiñe gerra bueltan dxaten gendun. Da usaten san gedxau be, usaten san gedxau be, lebatzetzako karnadatako be bai, esanin oten sardiñie edo antxobie, esanin oten, usaten gendun ee, lebatzak atrapateko, bai, ori ta txibidxie amun imiñdxe. Da Elantxoben oten sien, Elantxoben oten sien akulaseriek, sarik oten sien akulak atrapateko. Da Elantxoben esaten dawie sopa-peskau eitxeko dela ona. Da esakeri oten da, esakeri oten da, andra gástiri bularra ekarteko ona dala.. ori  
olako bi?

akula bi atrapa dus.. Botakarra<sup>31</sup>, botakarra. Da, antz-antza dako, antz-antza dako, ee, e akulin antza dako, bai. Ori, ori da, akulik atza botaten dau alako berde- atza botaten dau, se asur berdi dako akuliek. Asur berdie edo asulk- alaku dako. Daa onek e botakarrak es, botakarrak asur suridxe dako. Botakarra usaten san len, oiñestaipe, len e, imintxe bien antxobie les látatan, fileteik imintxe bien. Da au be atrapaten da ba trañekas, esati les, a esta amoko arrañe, tráñekas

da "botakarra" ta "lantzoya" bardiñaties edo "lantzoya" entzun su?

*lantzoye* bai, dana da bat, bai. Lantzoye Bermion deitxuten tzoe, da guk Mundekan *botakarrá*, botakarra

da olako bi?

botakar bi atrapa dus. Baye botakarraa asko atrapaten da, se da trañekue, trañeko- "del serco" erderas esaten da

*"lisa, mujil, cabezudo"*

lasuná, lasuna. Bai, lasuna

nondik ibiltxen da ori?

<sup>31</sup> nire paperera begira dago eta irakurri egin du.

**portuen, da bueno bai amen e islan be bai, da amen portuen da, aur e Bermion dakosu fabrikie onena, selan da?** Konserban fabriki ta dakosu: Alfa ta ónek-eta, áren e eskapitara dakosuu lasun asko. Da amen islan, Ixaron bee, asko-ten da, asko, asko, bai da atrapaten dies?

**atrapa? Akostunbra bes e ibiltzen e, esta, atxiñe dxaten gendun ori be baye oiñ esta oin esta dxaten**

**oiñ esta!**

“lasune” ta “mublie” bardiñdxa?  
es, guk etzag<sup>32</sup> deitxu “mubli” iñoiñ be, “mublie” esaten du érderasko berbi dela, “muble”, bai, euskeras  
olako bi?

**lasun bi atrapa dus**

“dabeta, galupe”? Bermion esaten da “korkoye” korkoyé, korkoye, korkoyetako, lasunetako, esati les ee, baltzawe da, báltxuaw<sup>33</sup>, da korkoyetako, áulan e sakatzien, mantxa oridxe, oridxe, dako. Da okitxen dau e, e koipi les e esku pasata, koipi les e marmoka les olan koipi les okitxen dau, korkoyek bai  
da olako bi?

1 B

.. burús-béra, burús-béra, burús-béra, e, bertán e, onduen, topaten dxátekue, altzaten dau basie, altzaten dau arie ta, an, an topaten dawen dxateku dxaten

ori da “ondo-lasune”

**ondo-lasune bai**  
olako bi?

**ondolasun bi atrapa dus bai**

“pez sable”? espadiñe, espadiñe, sablie? -irakurritz- sablie.. eralduna da, esati les, sablia  
esta esaten?

**esaten da, esaten da, baye espadiñe, espadiñe**  
olako bi?

**ba espadin bi atrapa dus**  
da ametik ibiltzen dias orrek?

kálan, kálan, esati les ee, or ee eun-brása taa, laroiei brasa urien<sup>34</sup>-da, dabiltzasenien e lebatzetán-da, palangrakas da or atrapaten da  
da dxaten dias orrek?

<sup>32</sup> etzag = ez deutsagu

<sup>33</sup> báltxuaw = baltxuagoa.

<sup>34</sup> urean eta uretan desberdinak dira.

**bai bai, bai, dxaten da**

“pege”, “rey”, “abuxa” barriro. Palometa?

**“pegerrey”, “pegerrey”, esta abuxa, esta abuxe**  
beste bat da?

**bai. Papardo gorridxe**

ori da “pege”?

**bai, pegerrey, pegerrey.. Papardo gorridxe deitxuten tzagu guk e..**  
pege reyeri?

**bai. Daa “palometa” papardua, bai. Papardo gorridxe, papardo gorridxe da, e, “el rey de los besugos” deitxuten tzoe, papardo gorridixeri, érderas “el rey de los besugos”, besegun erregié. Da da paparduen antzera, bardiñe esate baterako, bay da gorridxé, da begidxepe andidxawetakos papardupaiño, bay da, papardun antz-antz dako, bay da gorridxe, bai**  
da atrapaten dias orrek danak?

**bai, atrapaten da orre be kan- kan- kánpuen, kálatan, ba esan tzuten modun palangrakas da olan e, piedrabolakas-da atrapaten da ori**  
orduan papardua be antzekua es?

**antza, antza bai, bardiña dako bai. Papardu da ba, illune**  
illune?

**illune, papardue**

ta olako asko?

**asko atrapa dus, papardo- papardo gorri asko atrapa dus edo papardo asko atrapa dus. Baye papardu atxiñe total asko oten san amen, asko. Palangrak eta eruen, da destrosue<sup>35</sup>, asko ote-san, da gero ori eiñda amaitxu, beste bide batzuk artun txus edo, beste bide batzuk se Portugalen-da, or ee Finisterren oestetik-eta atrapaten da palangrakas ori**

emen esta ikusten?

**on- ona gitxi, gitxi, lantzin bat atrapaten da bay gitxi**  
da “mero de roca”?

**merua, esta, amen esta esaten e, e, merue, merua, nik merue** (deitxuten tzat txo), merua, oten da asalian, esate baterako, aulakoo tráste bat asalien, kánpuen, asalien, da okitxen txus portzebak, portzebak. Goitzik deitxuten tzoe, ondarrabitarraketa, lanpernak. Amen (deitxuten..) portzebak. Portzebak dxaten, okitxen txus portzebak órrek ee kásu baterako aulako trónko andi bat edo, kaja andi bat edo, gausa.. gausa andi bat itxasun asalin, da (orre) okitxen (txus) portzebak, da meruk oten die a dxaten, asalekue, da gero dau ondoko merue

**bai, amen be, amen dakar “ondoko merue”**  
bai, ser da, beste bat antzekue

<sup>35</sup> destrosue = eskandalua, makina bat

**bardiñ-antzakue, bardiñ-antzakue bay ondoku da, ondoko merua baiño, au e asaleku da, ni pentzaten dot-ala, e.. oridxawe, apur bat oridxawe, apur bat oridxawe. Da ondoko meru illunawe**

ta orrek bai, orrek danak dxaten dias?

**bai bai bai bai bai**

“cabrilla” selan esaten da, “kostako kabria” edo, Bermion “kostako kabria” edo  
guk e, kostako kábriri guk e **gonbixa** deitxuten tzagu gonbixa?

**gonbixá**

“kostako kabria” ori da? “gonbixa”?

**gonbixe**

olako bi?

**gonbíx bi atrapa dus. Gero dau, -kostako kabria-**  
“merillo, serrano, lubina”...

**kostako kabrie-**

entzun su ori “kostako kabrie”?

**bai, entzun bai, baye, kábra gorridxe deitxuten tzagu, bát-a **gonbixa**, kostán-kostán atrapaten dena, beste bat-au **kábra gorridxe** esaten tzaguna, ee, kabra gorridxe dau kanpun atrapaten dena, da, kolor de rosiawe, da, beste bat-au.. selan deitxuten tzagu.. “cabracho” deitxuten tzo erderas, **itxaskabrie**, itxaskabrie, itxaskabri da, ee kostatik sabaltxuau dawena, sabaltxuawe. Gonbixe baiño andidxawe da “lubina”?**

**“lubina” lopiñie**

da “hemos cogido muchas lubinas”?

**lopiñ asko atrapa dus**

“corvina”?

**burbiñe, burbiñe, burbiñe, len asko atrapaten san amen Mundakan?**

**Mundakan da Bermion da kostan, oiñ ori be galdu eiñdxo. Ori bee gitxí, gitxí, gitxí ikusten da**  
da “hemos cogido dos corvinas” edo?

**burbin bi atrapa dus**

“verrugato”, Bermion esaten da “gurbidxa”  
estaits ser den “verrugato”, se ixen-  
da entzun su ori “gurbidxa”?

**es, éspadaa, éspada burbiñin antzekue, éspada burbiñin antzekue deitxuten tzaguna guk e.. burusberakue**

arrain baten ixena da ori?

**bai bai, burusberakue, igual ixe lei ori**  
selaku da ori burusberakua edo?

**burusberaku da ba burbiñin antza dako, burbiñin antza dako, baye txikidxawe, se burbiñetakosus ogei kilokuk eta otabos kilokuk eta otamar kiloku(k) be badaus burbiñek. Burbiñek e andidxek oten die**  
“jurel”, “chicharro”?

**txitxarrue**

“chicharro francés”?

**txitxárrue, bai, txitxarrue**

“hemos cogido muchos”

**txitxarro asko atrapa dus, gero daus, txitxarro differentiaus e? Txitxarro differentiaus, **txitxarro baltza**, dxateko be bástuawe. Gero dau **kasako txitxarrue**, txitxarro txikitxu ixeten da, koipi dako dxateko. Dau **kala txitxarrue**, ixeten da, ee nobienbre, disienbre, eneron, koipi dakona erreta dxateko, da **txitxarro buruándidxe**, beste bat-au.. gero dau, txitxarro **frantzes**, da beste.. Áfrikan atrapaten da beste txitxarro klase bat, sapalawe, baye dako bardin-bardiñe beren suek eta órrek e bardin-bardin dakos. Txitxarruk e.. kláse asko dau**

“salmonete de roca”, “kostako barbaña”?

**kostako barbañe, barbañe, bai**

olako iru?

**iru? iru barbaiñ atrapa dus, iru barbaiñ atrapa du**  
ibiltxen dias ametik?

**bai, ónek, sarikas, kostako arrañe da ori. Da **atxako barbañe** -irakurri- da **kostako barbañe..** nietzako bardiñdxo, se sariikas botaten su bai arridxen da bai e aretan, da, arraiñ e ibilli dabilena da, arrañe da arridxen atrapaten da, da atrapaten da arrastan, niri kuádra dxast e ondo atrapaten, kanpuen arrastan, bai, arrastan. E atrapateko ille ixeten da, illerik ónena mayetzá. Ordún da sartzen sartzen datorrenin arrañe kostará, kostara sartzen datorrena, bai kanpun e arrastan atrapaten du barbañe**

ordun dxakin bi da noix atrapa, dxakin bi da esta?

**e, bueno ori dakigu ba esperientzidxe (be) itxasora ibilldxo, ni berrotasaspi urte darutas itxasora, bueno erun tas, oiñ e geixori nau baye, berrotasaspi urte**  
urte asko esta?

**arrastan ein tas ogetalau urte**

ta esateko “salmo-?

**ara, esan tzutena **itxasoandiko barbañe**, barbañe, itxasoandiko- ori da itxasoandiko barbañe esan tzu(tena), mayetzin atrapaten asten da kánpuen, ori da barrura datorrena, barrura datorrena**

esateko “mujarra”?

**múxarra**

suek olan?

**bai, múxarra**

ta bermiotarrak esaten dauie “musoye”?

**muxoye da-**

“muxarra” eta “musoye” estias bardiñak?

esti bardiñek, es. Dau esaten duna bat *muxo-muxarra*<sup>36</sup>, da, muxo kumie, muxo txikidxé, gero dau *muxuá*, da *múxarra* esta muxua, esta muxua, típue bai baye esta muxue. Esta muxue. Gero dakosu muxuek, differentiek, daus *muxo gorridxa*, da muxoo illune, iruu kláse edo ongo dii, iru edo lau klase muxo ongo die. Dana da muxua baye.. da dako.. arráidxek, arraidxetakos bai  
da “dos mujarras”?

**muxar bi atrapa dus**  
*da bestia mu-*

**muxó bi**  
da “mocharra” bardin esaten da, “muxarra”, “musoye”. “Sargo, sargo picudo” erderas edo estakitz e

.. “sarbo”, edo “sargo” edo, hola –kaleko bati-, “sargo” edo “sarbo” edo ori deitxuten tzoe, e, estaipe.. Mundekan-da *muxue*, muxue, Mundekan-da muxue orri be. Badiñotzut ónetie muxuek bay differentiek, báta gorridxe dela, béstie.. ba órrek e ixen raruk dakosena or, okingo dau e, orreitxik okingo dau bai

“chopa”, Bermion “sapaterua”, sapaterua, baidu bat edo?

**sapaterue? Sapaterue, s s, ori estaitx e**  
*“dentón”? Emen dau burusberakua*

**len esan tzutena, bai**  
olako bi?

**burusberako bi atrapa du(s), bai bai**  
ta atrapaten dias orrek esta?

bai, gitxi e? Gitxi, gitxi. Len gedxau atrapaten san, orain gitxi. Itxasuk erreten (dxausak ya) erre, erre.. (eta) estau..  
“dorada”?

doradi da, muxuen-da baiño andidxawe, bai. Muxun-da baiño andidxawe, da orretako olan e begidxen onduen dako gausa-, e esati les mantxaa ori

a oridxa?

**oridxe**  
da se ixen dako euskeras orrek?

**doradie, doradie**  
*esta esaten ure-*  
**urreburue**

olan be bai?

**baitxe, ureburu edo doradie**  
bardiñdx?

**bai bai bai. Ureburu edo doradie**  
da olako bi?

**urreburu-, bueno, Mundekan dorada bi atrapa dus**  
*Mundekan*

**1.1. Mundekan, *urreburu* Bermion**  
besugo?

**besegue**  
dos besugos?  
**besegu bi atrapa dus**  
aligote?

alluuta, allueta da, e, besegun-da antzekue,  
**Galisidxen allueta(ri) deitx(en) tzoe “besugo”**  
*Galisidxen*

**Galisidxen, da beseguri, guk deitxuten tzagune**  
**beseguri deitxuten tzoe “ollomól”**  
bai e?

**1.2. Galisidxen. Allueta(ri) deitxuten tzo**  
**“besugo” da beseguri “ollomól”, galleguek**  
da olako iru?

iru alluet atrapa dus, ontxé udán atrapaten da allueta amén, oiñ alluet txikitxue e?, da gero or e urridxen bwéltan nobienbre, disienbrin-da, or negu bwéltan e, urritxik negura atrapaten da ya alluet andidxawe, apaidxukas bai  
“pagel”, “breca”?

**brekie**  
olako bi?

**breka bi atrapa dus**  
“pez herrera”?

**erridxo-arrañe, erridxo-arrañe.** Ori len asko oten san amén Mundekako erridxuen, Mundekako errekan e asko oten san, ba ori be galdu iñdexe, bai. Ori arrañe da ba, se-sangotzupa, e, alluetan antza eitxen dau, baye allueta da, ee besegun kolori esate baterako, txíllun kolorié, da orretako, koloria, doradin kolori les, bay dako arraidxek, bai. Da, e, antza-antza allueten antza, e? berak arrañek, beren alluet(e)n antza, baye allueta da e besegun koloria, arraidxa barik, da au da doradin koloria arraidxakas, eso es. Erridxo-arrañe  
itxasoko arrañe esta ori?

es, erridxo-, erridxo arrañe. Onbre, kostatik ure-ta atrapaten da e? Kostatik ure-ta atrapaten da  
“boga”?

**bogie, bogie.** Ori arrain bástue, arrain bástue. Atrapaten dauie trañekas-da atrapaten dauie ori dxaten da orduan?

**bai bai, bai bai, dxaten da bai**  
da olako bi?

**bogá bi atrapa dus, bai.. Durdue -irakurriz-**  
“durdoya”?

**durdue, “maragota” deitxuten tzoe galleguek**  
da suek selan?

<sup>36</sup> *muxo-muxarra* Mundakan baino ez da esaten.

durdoya, durdoya, durdoye da, arriko arrañe, arridxen atrapaten da ori arrañe, da, oten die ba, kolore differentitakoe, durdoi gorridixe, berdiskak eta, kolore differentitako arrañetie  
olako bi?

**durdoi bi atrapa dus**  
da erderas "gallano", "maragota" edo  
**durdoye ori be**  
"peto", "pavo real"... "durdoye" danak  
bai ori da, esan tzutena, kolore differentitako les ba batzuk deitxuko tzoe ba berdeskiri ba (ó)lan da gorriskiri álan-da.. bay, durdoye = durdoi  
suentzat danaties "durdoye"  
**danatie durdoye (..)**

"porredana", "tordo rocoso", Bermion "txárrue"  
bai, txárrue, ori da durdoyen antzeku-, txárrue, guk e **karraspidxue**  
suek "karraspidxue"?

bai, karraspidxue. Ori da durdoyen antzekue, bay txikitxue, txikitxue. Antza durdoyena bay txikitxue  
orduan au esango da Bermion

### 1.3. Bermion, Bermion *txarru*, Mundekan *karraspidxue*

olako bi?

**karraspidxo bi atrapa dus**  
"tabernero" be esaten tzoe orrerri? erderas  
**"tabernero" da beste arrain bat**  
beste bat?

bai, beste arrain bat-a. Bay etzagutxen guk **txarru**, tabernero-, tabernero-arrañe  
olan?

tabernero arrañe deitxuten tzagu guk, orí, ónek e, lulak atrapaten duseñien, lantzin bein atrapaten da olakue, bay txikitxu ixeten da  
orrek dxaten dias edo?

**es, bota eitzen du, bota eitzen du**  
"doncella", "julia"?

**lulie, Bermion *txilipitxerue***  
suek es?

**es, Mundekan *lulie***  
olako bi?

**lula bi atrapa dus.** Oñ, beste gausa bat esango tzut, amén be **txilipitxerue** batzuk batzuk deitxuten tzo baya len esan tzutena  
klaro bermiotarrakas..

**bermitarrakas, eso es. Ostantzien Mundekan *lulie*, betí**  
supe dxakin su "txilipitxerue" esta?

**bai bai. Mundekan *lulie***  
"araña", "escorpión"?

**salbáidxue, bai salbaidxue**  
Mundakan be bai  
**ba ámen be salbaidxue**  
ta "araño", "faneca brava" bardin,  
"salbaidxua" edo  
.. **salbaidxo frantzesa** deitxuten tzagu oneri, "araño"  
"faneca brava"ri  
"faneca brava"ri?

**bai, salbaidxue, bay salbaidxo frantzesa**  
salbaidxo frantzesa

**bai. Onék, salbaidxuek, pikaten batzu, ño! dolore gogorrak omoten txus**  
plaidxan eta esta?

**bai, dolore gogorrak!** Sabalin be bai, itxasuen. Dolorik e total gogorrak omoten txus. Da salbaidxo frantzes(a), da buru- buru aplastawe, buru aplastawe, differenti daa bestetik, da dakos, su-bí dakos aulan e egutan, egutan dakos, bueno, sakatzien, dakos su bi, baye esta olako brábuee dolorikas, esta, esta, es, differenti da  
salbaidxua gosu da dxateko esta?

**bai, bai, bai bai. Salbaidxu gosu da. Salbaidxo frantzesa estu dxaten e? béstie**  
"babosa" selan esaten da?

**.. beleneri Mundekan**  
selan?

**belenerie**  
olan esaten da Mundakan?

### 1.4. Mundekan *belenerie*

Bermion "otxobabastua"  
**otxobabastue bai, baye ori Bermion, Mundekan es, Mundekan *belenerie***  
da ori da "babosa"?

**bai, "babosa"**  
da olako bi?

**ba belenera bi atrapa dus**  
selan?

**belenera bi atrapa dus.** Móllan ontxe be básus an ee, eskillaretan ukuskosu órrek, ukusten die, bertan e- atrapaten dias orrek?

**atrapaten daui ume txíkidxek e amo txikitxukas-da ibiltxen di bai**  
ostantzien suek es?

**es, es**  
da "mama, babosa, futarra, babosa" ba dana da bat

- bai, bai**  
*lanzón, aguacioso, lanzón, "lantzoye"*  
*Bermion*
- lantzoye, ba, lantzoye** estaipa se gu dawen esan lan-, lantzoye, guetzako lantzoye ori da, selan daa? Len esan duna, ee, **botakarra**  
 botakarra?
- lantzoye guetzako botakarra da**  
 suek estosue esaten "lantzoye"?
- es, botakarra**  
 caballa?
- berdelá, berdela**  
 selaku da ori?
- ori da ba arraiñ e, ee asule, asule, barruu, tripasúridxe, da, gero dau mакaela, mакaela da begi-ándidxawe, begidxa dako andidxawe da illunawe.**  
**Berdelatakos arraidxak, da mакaelak estako. Bardiñ antzera, mакaelak bakos baye, arraidxa motelak, esati les, kasii ikusi be esta eitxen, da, bay dako begidxe andidxawe, berdelapaiño**  
*ba amen dakar gero "mакaela"*
- ma- mакaela, differenti da**  
 dos caballas?
- berdel bi atrapa dus**  
 da bestia?
- mакael bi**  
*erderas ser da? "estornino" dakar amen, erderas*  
**makarel, "macarel" deitxuten tzo baitxe Inglaterran** be "macarel" deitxuten tzo inglesape, makarel.  
 esta amengo berbia bakarrik?
- es, es. Inglesak be "macarel" deitxuten tzoe. Áfrikan** be bai árek baltzak "macarel", se, ni dxunai kargata mакaelas e.. Áfrikara, "macarel" deitxuten tzo arepe, estaipa nok ikasitxe<sup>37</sup>. Simarroi = simarroi - irakurri-  
 ori da "atún rojo"?
- bai, bai, bai, gorristi da bai**  
 "simarroya" orduan?
- bai. Gero-**  
 olako bi?
- simarroi bi atrapa dus, bai**  
 ta ori ta atune?
- e atune bardiñ-antzeraku da, bay dago, atunetako,** atunetako egue lusiawe simarroyepaiño. Simarroyeri deitxuten tzo- ee kiputzek *egolaburre*, da atuneri *egolusie*  
 ango berbie da "egolusie"?
- egolusi-ta bai**  
 suek es esta?
- guk e simarroi ta atune**  
 da serrutxue?
- serrutxue**  
 ori be bai, beste bat-a?
- bai, bai, serrutxu da, ee, aginsorrotza deitxuten tzagune = serrutxo, aginsorrotza be bai deitxuten da, serrutxo**  
 orrek danak antzkuak esta?
- bai bai bai bai**  
 listado?
- albakora, bai baye albakori etzagau deitxuten, bueno, deitxuten tzagu albakorie, orretako, ba atunen-da antzku baye, listawe da, ólan tripán, arraidxatakos, arraidxatakos, asii, e sakatzetik eta bustenerarte dakos arraidxek**  
 ta atunek estako olakorik?
- es es**  
 olako bi? dos listados?
- ba albakora bi atrapa dus**  
*"malva"?*  
**melbie, melbie. Ori, ori da, atunen antza dako, atunen antza dako orrek**  
 dxaten da ori be?
- bai, bai, bai, bai. Da gero (dau) mojie**  
*bai, beste bat*
- bai, mojie. Ori be, atunen antza dako, bay da e totuawe, begi-andidxawe, da egu dako, egu dako simarroye ta atunen bitxarteeekue, esdako<sup>38</sup> txikidxe, esdako andidxe, bidxen bitxartekue**  
 len esan du "melbie", olako bi?
- moja bi atrapa dus**  
 eta bestie melbie bada?
- albakorie, albakorie**  
*"melbie" esu esan bat? malva, melbie*
- bai, melbie, amén báiñoo, amén melbie** kasi deitxu be esta eitxen, (a) melbie Andalusitxik-eta, "melva"  
 suk ikasi ein dosulakon?
- bai, bai**  
 Mundakako berbia esta?
- esta esta..**  
 pez espada?
- akula bidegardie, "pes espada". Orretako musturrin espadi les, andidxek atrapan die, atrapan die.. semat esangotzut ee irureun, laréun, bostéun kilokuek**  
 ametik urrun ibilliko dies orrek es?

<sup>37</sup> ikasitxe = irakatsita.

<sup>38</sup> esdako = eztako. Estako da ahoskera normala Dimasentzat, hau lapsustzat har daiteke.

kánpuen, da Mediterranun atrapaten da asko, Mediterran(u)n gedxau (oten da) olako bi?

**akula bidegarde bi, akula bidegarde bi atrapa dus, bai**

“gobio” erderas, Bermion “otzoburuskue” .. a orii! Selan da, otzoburuskue? entzun su ori?

otzoburuskue bai, baye, guk e etzagutxut olen, guk deitxutzen tzagu abruskue, abruskue. Ori oten da átxetan, posuutan da olen atrapaten da ori “gobio” ori da “otzoburuskue”?

**bai, bai, guk deitxutzen tzagu abruskue**  
olako bi?

**abrusko bi atrapa dus**  
orreko dxaten dias?

**bai, abrusku bai. Abrusku arrain suri-suridxe da.**  
Osea, aregidxe, e? Berá, e grix-antzera edo eitxen dau baye, aregidxe suri-suridxe  
beste bat erderas “gobio de arena”, baye isena bardin dako esta?

**bai**  
“la gallineta”? Bermion “kabra gorridxe”  
len esan tzutena, kabra gorridxe kánpoku da, da, dako, e, kolorie, rosa kolorie, rosa kolori dako, orrek, fiñawe dxateko, oïñ!, ee, koipie gedxau ta esati les brabidxo gedxau dako itxaskabriek eta gonbixek, bai, au da swábiawe  
“cabracho”?

**len esan tzuten-, bai, gonbixe**  
da “escorpena, rescaza”  
**itxaskabrie. Len esan tzutena bai**  
“arete, cuco”?

**arraingorridxe edo neskasarra**  
bardin?

**bai, bardin. Amén deitxutzen dxako, neskasarra be**  
bai deitxutzen dxako, baye deitxutzen dxako perloye, perloye. Bay perloyek, daus diferentiek, bat-a perloye da besti da neskasarra deitxutzen tzagune da diferente arrañe, bardiñ-antzukue, bay differentie ta “arraingorridxe” ta “neskasarra” bardiñdxe?

**bai, bai**  
ta “perloi baltza”?

**perloi baltza da, perloi gorridxen antz-antzukue, bay**  
da berdeskiawe, koipe gedxauko arrañe, gosuawe besti báiño. Au a gitxial atrapaten da, gitxi atrapaten da ori  
ta “perloi gorridxa”?

**perloi gorridxa (au)ri, e arraingorri- “cuco”, esto, e**  
perloye, perloye  
da “lucerna, rubio”?

**kukutza, kukutza, dana da bat, dana da bat e, gitxi ba gorabera dana da bat**  
da olako iru?

**iru kukutz atrapa dus, edo iru perloia atrapa dus**  
orreko danak atrapaten dias es?

**bai, bai, bai, bai, bai**  
ametik urre edo..?

**ámen, kukutzak ámen be bai, perloyek, e bertón,**  
kostan be bai  
“bacalao”?

**makállue**  
dos bacalaos?

**makallo bi atrapa dus**  
faneca?

**takarta, bai**  
da fane-  
*fanekie* estu deitxutzen guk -irakurriz-, **takarta**  
ori erderas da  
dos fanecas?

**takar bi**  
ta badau bat “sabaleko takarta”?

**bueno!.. s takarta, dana takarta, (sera), nai kánpun**  
atrapaten suna, kálan atrapaten suna nai amen  
atrapaten suna, dana **takarta**  
aupa, egun on  
*Germanik: se(r), posi saus?*  
bai, danatakis

**1.4.1. Germanik: orresegaixik esan tzut, bai**

**obá dxakiñ es, oba dxakiñ es**  
*Germanik: amalau urterik o amabi urterik itxasora*  
(...)

**itxasora betí**  
*Germanik: bueno suek ein seuen biarrak eta (...)*

*laster akabaku*  
estakosu prisik.. estau, estau prisik, estau prisik,  
sabal-sabal  
abadejo?

abadejue, da.. bueno!, dau bat deitxutzen duna makallo arraña, makallo-arraña.. makallue berdaderue, esati les, makallue-makallue amén esta atrapaten, amén esta atrapaten, ori atrapaten da ba Kanadan da Norwegian da (ó)rretan<sup>39</sup>, nortetik atrapaten da, amén dau deitxutzen tzaguna makallo arrañe, edo bridxandia, bridxandie, órretie, arraiñ e, makallue deitxutzen tzagunetako baa, angirin antza dako, baye esta angirie, esta angirie. Da gero ba bestia, au e bridxandi da makallun antzukue, makallun antzukue, bay esta bardine, esta bardine

<sup>39</sup> órretan ez bada áurretan dio.

“abadejue” be esaten da euskeras?

**bai, e makallo-arrañeri es. Makallo-arrañe deitxuten tzagu guk e, makallu da, esan tzutena sabalekue, esati les e nórtekue, Kanadan-da, Norwegian-da, órretan atrapaten da makallue, da, amén deitxuten tzagu *makallo-arrañe*, da differentie areenik. Gero bridxandi da antzeku baye differentie aren- e bestientenik<sup>40</sup> carbonero?**

“carbonero” da, makallo arrañen antzekue, makamakallun antzekue, bay da báltzawe, báltzawe. Se makallo naturalak, makallue-makallue(k), da gris-ántzekue mántxakas, pékakas. Da ónek estie, órrek estakoye, béstik estakoye, es

ta “karbonero” esateko Bermion “fogonerue” be esaten da

**fogoneru bai, bai, bai, amén be bai, bai, ónek arrastako arrañetie e? Esti kostako arrañek olako bi?**

**abadejo bi atrapa dus, abadeju da kostaku be bai e? Bai, da kánpoku be bai. Ba abadejo bi atrapa dus, edo fogonero bi atrapa dus, da au béstí ser da ba?**

*liridxue*

**a liridxue, liridxue? Ee, liridxu da.. mm, Josus! Makiña bat e..**

---

<sup>40</sup> nik horixe entzuten dut. Zezelako lapsusa egongo da hemen, neure iritziz. *Bestienik* esan gura izan ote zuen?